



SANTO TOMAS EGUNA BIHAR

1.580 kiloko zezena ikusgai jarriko du Mikel Lujanbiok Donostian, Santo Tomas egunean

Zazpi urteko zezena da, eta Azpeitiako Agite baserrian hazi dute. Okendon egongo da ikusgai 10:00etatik 17:00etara. Goiz Eguzkin ere, Santo Tomas eguna ospatuko dute bihar.

MIKEL Lujanbio Xapo hernaniarrak ikusgai jarriko du bihar Donostiako Santo Tomas ferian, Ven, 1.580 kiloko zezena. Zazpi urteko zezena da, Azpeitiako Agite baserrian jaioa, eta bertan hazia. Blonda Akitania arrazkoa da, eta lehiaketa askotan irabazi ditu sariak, bai Euskal Herri mailan, eta baita Spainian ere.

Lujanbiok, Abere Haragiak enpresako arduradunak, erosi du, eta hain ikusgarria izanik, ferian ikusgai jartzea erabaki du. Donostiako Okendo plazan egongo da, Maria Cristina hotela eta Victoria Eugenia antzokiaren artean, goizeko 10:00etatik 17:00etara.

«Oso haragi goxo eta xamurra du, ondo gobernatura dago» Lujanbiok azaldutakoaren arabera, jan eta lo besterik ez du egin, eta beti oso ondo gobernatura egon da. Beraz, nahiz eta ez gauden zezena-



Ven zezena, Azpeitiako Agote baserriko zelaietan.

ren haragia jatera ohituta, Venek oso haragi goxo eta xamurra izango du. Kanalean, 1.100 kilo pisatuko dituela aurreikusten dute. Ven zezena erosita, Abere Haragiak enpresak bere lana ezagutzera eman nahi du ostalarien artean.

2.500 plaza gehiago RENFEk, Donostiara joateko Goizeko 10:00ak eta 12:00ak bitartean gerturatzentz da jende gehien Donostiara, Santo Tomas feriara. Hori kontuan izanda, tarte horretan RENFEk plaza gehiago jarriko dituela jakinarazi du.

Goiz Eguzkin ere, txistor-jatea bihar Goiz Eguzkiko kideek txistor-jatea antolatu dute bihar, Santo Tomas eguna ospatzeko. Ondoren, kaleko eta mahai jokoetako sari banaketa egingo dute, udazken-neguko txapelketetakoak. //



Nahikoa txistorra janda dira Sorgintxulon. Santo Tomas egunari aurre hartuta, txistor-jatea egin zuten igande eguerdian Sorgintxulon. Ondoren, Gabonetako saskia eta ardoak zozketatu zituzten bazkideen artean. //



Portuko plaza gainezka, Santo Tomas ospatzeko. Ibarrolaburu Plazan eta arkupetan ospatu zuten igande eguerdian Santo Tomas eguna Portun. Auzotar ugari gerturatu ziren txistorra jatera, eta ondoren, Gabonetako saskia zozketatu zuten. //

❖ GABONAK Olentzero Kardaberaz kalean dago

Urtero Biterin egoten zen Olentzero Kardaberaz kaleko 20garren zenbakian dago aurten. Umeen bixitak jaso zain dago bertan, 24ko gaua iritsi bitartean. Nahi duenak, gutuna botatzeko buzoia ere bertan du. //

❖ GABONETAKO SASKIA Errifak erosteko azken eguna, osteguna

Berriak eta Hernaniko Kronikak saskiak zozketatuko dituzte aurten ere, Gabonetan. Lau saski osatu dituzte, eta guztiek Biterin zozketatuko dituzte ostiralean, eguerdiko 12:00etan. Errifak ez duenak, salgai ditzu Berriakeko komertzioetan eta Hernaniko Kronikan, euro batean. Erosteko azken eguna, osteguna da. //

❖ OZENKI ABESBATZA Gabonetako loteriako hainbat zenbaki, baliogabe

Ozenki abesbatza Gabonetako loteria saltzen aritu da, eta azaldu dutenez, bazkide batek galdu egin ditu berari zegozkion loteria batzuk. Hortaz, hainbat zenbaki balio gabe geratu dira: 1.920 eta 1.950 bitartekoak. //

❖ SAN JOAN KONPARTSA Txerritxoaren zenbaki saritua: 3.218a

Santo Tomas eguna ospatu zuten San Joan Konpartsako lagunek larunbatean, eta aurten ere, txerritxo bat zozketatu dute. Zenbaki saritua abenduaren 17ko itsuekin atera zen, eta 3.218a da. Saridunak urtarrilaren 18ra arte du txerria jasotzeko; deitu 695 75 31 38ra. //

Mendi Lore
loradenda, jardineritzá

Larramendi 5, HERNANI. Tel: 943 55 23 26.

**GABONETAKO
ZOZKETA
2011**

*Errifak salgai!
**BETE DITU
4 SASKIAK!**

ZOZKETA OSTIRALEAN, 12:00ETAN, BITERIN

DORRONSORO

OKINDEGIA

Orain bi tokitan aurkituko gaituzu:
⇒ Lizeaga 4an.
Ogia eta bolleria aukeran.
Ordutegia 07:15-14:00/17:00-21:00

⇒ Akarregi poligonoan, obradore nagusia, denda eta kafetegia.
Ordutegia: 05:30-13:30/16:00-19:30

DORRONSORO
Ogi egin berria
beti zure eskura

Detailed description: This block contains promotional text for Dorronsoro bread. It features a large, stylized logo for 'DORRONSORO' with the tagline 'Ogi egin berria beti zure eskura'. Below the logo is a black and white photograph of a baker working behind a counter in a bakery, surrounded by various bread products. The text provides details about the bread's availability: it can be found at Lizeaga 4an, where they offer 'Ogia eta bolleria aukeran' (various breads and pastries), and at their main location 'Akarregi poligonoan' (Akarrregi polygon), which also has a cafe ('denda eta kafetegia') and is open from 05:30 to 13:30 and 16:00 to 19:30.

● TELEFONDAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udalzaingoa: 943 248900 ● DYB: 943 464622
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korrea Goizuetako-Hernani: 948 514037
 ● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
 + FARMAZIAK ● Egunez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA

GAUR Eguraldi goibela eta bustia izango da. Fronto berri bat iritsi eta euria egingo du, etengabe. Temperaturak gora egingo du, zertxobait: Min.7° / Max.12°

BIHAR Eguna lainopean pasako bada ere, euri gutxiago egindu. Temperaturak gorako joerari eutsiko dio: Min.10° / Max.14°

(euskarai.net)

HERNANI'N MUSIK - Udazkeneko Saioak



Emanaldi ezin gozoagoa eskaini zuen Maddi Oihenartek Biterin.

Hernani'n Musik ekimenaren udazkeneko saioak ostegunean bukatu ziren, Maddi Oihenarten kontzertu ikusgarriarekin. Hasi aurretik, Onintza Albeniz hernaniarrak harpa emanaldia eskaini zuen, Maddi Sanz eta Sara Mesa gazteekin batera. Ondoren, ahotsa izan zen ardatza. Aurreikusi bezala, Maddi Oihenartek kontzertu bikaina eskaini zuen, kalitatez beterikoa, Juancho Zeberio, Txema Garces eta Pello Ramirez taldekin. Baldi azken diskoko kantuak, eta Hari Biru aurreko lanekoak kantatu eta jo zituzten. //

EHIZA - Urriaren 12tik urtarrilaren 31ra



Andrea Rodriguez uruguaytarra ehizean, Larre Gainen.

Ehiza denboraldia aurrera dijoa, eta Hernaniko ehiztariek diotenez, usoan altu pasa da aurten. Andrea Rodriguez da usotan aurten ibilitako ehizarietako bat. Uruguayekoa da, eta bost hilabete daramazki Hernanin bizi. Txikitik datorria ehizerako zaletasuna, eta Uruguayan bezala, Hernanin ere probatu nahi zuen; aurreneko tiroak Larre Gainen bota zituen. Bi parajeak alderatuz gero, hemengoa nahiago duela dio Rodriguezek: «Uruguayko zelaiak oso lauak dira. Hemen mendia da nagusi, eta ehizerako, nahiago dut». //

COP Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hontean sail honetan esaten direnak.

Chico nacional responsable se ofrece...

Adinekoak zaintzeko eta etxekek lanak egiteko bere burua eskaintzen duen mutil baten iragarkia da, egun Ergobiako planaren dagoena. Hitz batek eman dit arreta irakurle, zuri ere eman dizun horretxek segur aski. Hori idatzi duena ez da atzerritar hegoamerikarra, sarri adinekoak zaintzen ikusten ditugun horietako, ez, nazionala da, espainola, eta harro dago horretaz; ezen iruditzen baitzaio lan aukera gehiago duela gure inguru honetan hori hala adierazita. Ez diogu deituko, eta delako horrek ere idatzi hau ez du irakurriko, hortxe nonbait!

Adinekoen zaintza gero eta arazo handiagoa da gurean, denok dakigun bezala. Gaizki ordaindutako lana, hemengo

euskaldunek estimu handitan ez duguna. Horregatik, hainbeste ez-euskaldun lan horretan.

Gotzon Egaña datorkit burura. Gerraondoan maisua izan zen, euskaraz ematen zuen herri txikietan, esaterako, Zegaman-Joseba Intxaustirenen irakasle izan zen, eta Donostian bizi izaki, euskarazko antzerkia landu zuen, testu-idazle gisa. Emaztea hil zitzaiion eta azken urteetan kubatar emakume batek zaintzen zuen. Beti euskaraz bizi izana, euskaltzale porrotakoa; azken urteetan kubatar eraldun baten eskuetan. Euskaldun batekin gusturago zatekeen, baina ez zioten aukerarik eman. Badakit euskaldun zenbaitek ez diola hizkuntzari begiratzen baizik eta diruari, eta merkeena hartzen duela.

Ergobian iragarki hori jarri

duen mutilak non ikasi ote du? Berriki etorria ote bera ere, nahiz Espainiatik etorri, eta ez Amerikatik; Hego Euskal Herriko leku eraldunen batean hazia eta hezia; eskola porrotaren ume, menturaz?, edota gure artean D ereduan ibilia? Jakiteak baluke interesik.

Bestezaz behartzen naizenen, neureek zaindua nahiko nuke izan, eta posible ez balitz, euskaldunen batek, euskaldun gisakoren batek noski, ez edoze-lakoak, eta iragarki jartzale horri komeniko litzaiok jakitea "nacional" izenondo horrekin ez zaiola lan aukera gehiegi zabalduko gurean, eta balitekeela murriztea ere, ez dakidan neurri batean. Gustura irakurriko nituzke ni baino jantziagoak eta arituagoak gai honetan!

Pako Sudupe Elortza

◆ TXANTXANGORRI - EHIZA

Txakur eta guztiko ehiza txapelketan parte hartzeko, zabaldu dute izen-estatea

Txakur eta guztiko ehiza txapelketa antolatu du Txantxangorri elkartek urtarrilaren 8 eta 15ean. Parte hartu nahi dutenek, aldez aurreik eman behar dute izena, elkartean. Ordutegia: astelehentez ostiralera, 19:30etatik 20:30etara. Izena emateko azkeneko eguna urtarrilaren 6a da, 20:30etan eta parte hartu nahi dutenek, izena eman aurreik ordaindu behar dute. 35 ehiztarik baino gehiagok emango balute izena, zozketa egingo litzateke. //

◆ ZUMITZA

Lizentziak tramitatzeko egunak, gaur eta bihar Zumitzan

Zumitzako txirrindulari eta triatlooi taldeetan parte hartu nahi dutenek gaur edo bihar pasa behar dute lizentziak tramitatzera, 19:30etatik 20:30etara. Lizentziak tramitatu aurretik, 85 euro sartu behar dira 2101 0041 03 0127163806 kontu korrontean, eta agiria aurkeztu behar da. Horrez gain, arropa probatzeko azken astea izango da, eta ondoren, beste aste bat izango da eskaera egiteko. //

◆ ARETO FUTBOLA

Urtea Azpeitikori irabazita bukatu du Horbel Tabernak

Ez zuten nahi adina gozatu eta duten jokurik onena erakutsi, baina Horbel taberna taldea 3 puntuekin itzuli zen Hernanira. Azpeitikoren kontra 0-1 galtzen hasi bazen ere, buelta eman, eta 3-1 irabazi zuen talde hernaniarrak. //

◆ SASKIBALDIA

Teklan Hernani nagusi, Irungi 72-66 irabazita

Aurkari zailaren kontra ondo nagusitu zen Teklan Hernani senior taldea. Irungo Carnicas San Marcial taldeari 72-66 irabazi zion. //

◆ ELUR TXORI - MUS TXAPELKETA

Banakako mus txapelketako bost partida jokatuko dira gaur, Elur Txorin

Mus Txapelketa ari dira jokatzen Elur Txori elkartean, banakakoa. Antolatzaila jakinarazi dutenez, gaur bost partida jokatuko dituzte: Mikel AR/Josu; Gorka/Txema; Patxi/Esnal; Zubillaga/Iñaki Imaz; eta Mikel Aierdi/Uriarte. //

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotsasuna. Deitu: 616 886 660.

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotopedilazioa, eguberriarako prezio bereziak 2X1.

Beherapenak aurpegi tratamenduetan. Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. Atzieta 2, beheha. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu personalean eta profesionallean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosis... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebralear, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

IRIZAR ARDOAK



La Rioja Alta S.A.



CASTILLO DE MONJARDIN



Barón de Oña



TORELLÓ
CAVA



SOLAGÜEN

Telefona: 943 55 10 01 Akarregi, 3c partzela 20120 HERNANI